

Altsasuko gertakarien inguruko informazio dossier-a

(Atxilotu eta auziperatutako pertsonen gurasoak)

Altsasu, 2017ko abendua

1. Sarrera
2. Kronologia
3. Argudio juridikoak
4. Adierazpen instituzionalak eta elkartasun keinuak
5. Ondorioak

1. SARRERA

2016ko urriaren 15ean, Altsasuko ferietako goizaldean, herriko gazte talde baten eta euren bikoteekin zegoen kalez jantzitako guardia zibil bikote baten arteko liskarra sortu zen Koxka tabernan, herriaren erdialdean. Gertakari hauen ondorioz, Guardia Zibiletako batek orkatileko haustura pairatu zuen eta ebakuntza egin zioten, eta zazpi gazte atxilotuak izan ziren, Audientzia Nazionalera eraman eta ondoren espetxeratuak. Osotara hamaika pertsona **inputatuak** izan dira, **agintaritzaren aurkako atentatua**, lesioak, diskriminaziorako probokazioa, gorrotoa edo taldeen kontrako indarkeria eta terrorismo delituak egotzita. Horietako zazpi, baldintza gabeko espetxealdian atxilotuak izan ziren, fidantzarik gabe, Alcalá Meco eta Soto del Realeko espetxeetan hilabete batez Carmen Lamela Audientzia Nazionalerako epailearen aurrean deklaratu eta gero. Gaur gaurkoz, otsailak 25, horietako hiruk espetxean jarraitzen dute.

Azpimarratzekoa da Foruzaingoaren lehen txostenean autoritatearen aurkako atentatua eta lesioak bezalako delitu posibleez soilik hitz egiten zela. Gainera, hasiera batean kasuaren ardua Foruzaingoak hartu zuen, eta hori izan zen lekukotzak jasotzera gertakariaren lekura bertaratu zen lehena. Halaber, Guardia Zibilak egin zuen lehen txostenean egitateak ez dira terrorismo moduan kalifikatzen eta lintxamendu antolatua egon izana errefusatzen da.

Ondoren, Euskal Herriko Terrorismoaren Biktimen Elkarteak (COVITE) Audientzia Nazionalen aurkeztutako salaketak, kasuaren lekualdatzea eta proposatutako delituak terrorismo eta gorrotoa bultzatzea bezalako delituetara hedatzea eragin zituen.

Gertakariaren arteko proportzionaltasun ezak eta horren ondorio penalek herrian mobilizazio sozial handia sortu dute, udalak gurasoei ia erabateko babesa eskaini diolarik. Izan ere, gertakariaren neurritz kanpoko trataera salatzeko, gurasoek udalari egindako eskaera ia erabat babestu dute. Era berean, bailarako udalek aho betez babestu dituzte herri asanbladak deituta herriko plazan egunero egin diren mobilizazioak. Babes hori Nafarroako Legebiltzarreko gobernu-batzordeak terrorismoaren kalifikazioari desadostasuna agertzearekin ere ikusi dugu. Hori gutxi balitz, espetxeratuen askatasuna eta instrukzioa Nafarroako entzutegi probintzialera tokialdatzeko eskaera egin zituen. Halaber, proportzionaltasun ezak eta ondorio penalek hainbat kritika sortu dituzte bai alderdi politikoen aldetik, zein herri mugimenduaren aldetik. Honek guztiak isla utzi zuen iragan azaroaren 26an #Altsasu lelopean, Altsasuko kaleak bete zituen manifestazio jendetsuan.

Gazteen aurka hartutako neurriek, espainiar estatuan entzute handiko hainbat juristen kritika eta gaitzespena sortu dituzte: “gehiegizko jarduketa judicial”, “neurrigabe” eta “gehiegizko” -tzat kalifikatu dituztenak.

Bestalde, kausaren trataera mediatikoa daukagu. Kaltetutako pertsonen identitateen zabalpena egin dute, euren argazkiak, lanbidea eta ikastetxeen datuak zabaldu dituzte, kasua oraindik ere instrukzio fasean zegoenean. Horrekin batera, herriko zein bailara osoko errealitatea distortsionatu dute. Gainera, egin dituzten akusazioekin errugabetasun-presuntzioa, epaiketa justu baterako zein epaile naturala izateko eskubidea urratu dituzte. Honek guztiak haserrea eragin du herrian eta familien artean babesgabetasuna.

Dokumentu honen bitartez, gertakarien garapena nolakoa izan den eta jaso ditugun elkartasun eta laguntza keinu kontaezinak zein izan diren azaldu nahi dugu. Orobat, azaldu nahi dugu errugabetasun-printzipioa, proportzionaltasunarena, epaile naturala errespetatzea edota arduren indibidualizazioa ez direla errespetatu eta hori erakusten duten argudio juridikoak azaldu nahi ditugu.

2. GERTAERA AIPAGARRIEN KRONOLOGIA

- Urriak 15: Altsasuko Ferietako goizaldean, Koxka tabernan hasten omen den liskar baten ondorioz, Jokin Unamuno eta Aritz Urdangarin gazteak atxilotzen dituzte. Iruñera eramaten dituzte eta Foruzaingoaren Kuartelean atxilo aldi inkomunikatuan edukitzen dituzte. Guardia Zibil bati ebakuntza egiten diote, orkatilako haustura ireki bat dela-eta.
- Urriak 17: Unamunok eta Urdangarinek Nafarroako Entzutegi Probintzialeko 3. Aretoko Mari Paz Benito epailearen aurrean deklaritzen dute. Kautela-neurriekin askatzen dituzte.
- Urriak 18: Consuelo Ordoñezek, COVITEren izenean, gertatutakoaren aurkako salaketa jartzen du Entzutegi Nazionalen.
- Urriak 22: Altsasun manifestazio bat egiten da eta 2000 pertsona inguruk parte-hartzen dute. Komunikabideak egiten ari diren gertaeren trataera salatu eta gertakariak argitzea eskatzen da. Manifestazioaren hasieran, Colectivo de Víctimas del Terrorismo (COVITE)-ko kideek hainbat kartel iraingarri erakusten dute.
- Urriak 26: Diario de Noticias-ek argitara ematen duenez, Guardia Zibilak berak egindako informeak adierazten du, hedabideek esandakoei kontra eginez, ez zela lintxamendu edo jipoirik izan. Informeak eraso batez hitz egiten du, ez du bi agenteen hitzekin bat egiten eta ez du terrorismo deliturik ikusten.
- Urriak 26: Adur Ramirez de Alda, Julen Goikoetxea, Oihan Aranz eta Jon Ander Cob beren borondatez Nafarroako Entzutegi Probintzialera joaten dira Benito epailearen aurrean deklaratzera. Epailea bertan ez dagoenez, dokumentu bat sinatzen dute haien asmoak adieraziz.
- Urriak 28: Aratz Urrizolak eta Edurne Martinezek beren burua Nafarroako Entzutegi Probintzialean aurkezten dute Benito epailearen aurrean deklaratzeko. Dokumentu bat sinatzen dute haien asmoak adieraziz.
- Azaroak 9: Carmen Lamelak, Epaitegi Zentraleko Magistratuak, Iruñeko 3. Instrukzio Epaitegiari Altsasuko auziaren lekualdatzea eskatzen dio.
- Azaroak 9: Iruñeko 3. Instrukzio Epaitegiko epailea inhibititu egiten da eta auzia Entzutegi Nazionalera bidaltzen du.

- Azaroak 10: El Mundo egunkariak Altsasuko autoa argitara ematen du. Bertan, hamabi herritar, bi adin txikiko tartean, euren izen-abizenez identifikatzen dira eta ez euren NAN zenbakiaz. Hainbat gazte filtrazio horren bidez konturatzen dira inputatuta daudela.
- Azaroak 14: Honako atxiloketak egiten dira:
 - Oihan Arnanz: 7:30ak aldera atxilotzen dute, Gasteizko autobus geltoki parean, ikastetxera joaten zenean. Madrilera eramaten dute.
 - Aratz Urrizola: 9:00ak aldera Ordizian, bere ikastetxean, atxilotua. 8:30ak aldera Guardia Zibila bere etxean agertua zen. Madrilera eramaten dute.
 - Jon Ander Cob: 7:30ak aldera Iruñeko Azpilagaina auzoan atxilotua, ikastera zihoanean. Madrilera eramaten dute.
 - Jokin Unamuno: 9:00ak aldera bere etxeko atarian atxilotua. Guardia Zibila etxera bila joan zitzaiola jakin eta gero, lantokitik etxera itzuli zen. Madrilera eramaten dute.
 - Iñaki Abad: 9:00ak aldera bere etxean atxilotua. Madrilera eramaten dute.
 - Julen Goikoetxea: 7:30ak aldera etxe ondoan atxilotua, ikastetxera joateko autobusa hartzera zihoanean. Madrilera eramaten dute.
 - Ainara Urkijo: 7:45ak aldera Agurainen atxilotua, ikasturteko praktikak egiten dituen zentrorra joateko autoa utzi zuen aparkalekuan. Madrilera eramaten dute. Lamela epailearen aurrean deklaratu ostean aske uzten dute, pasaporterik gabe eta astean bitan sinatzeko betebeharrarekin.
 - Adur Ramirez de Alda: 8:30ean Guardia Zibila bere etxean agertzen da, baina zitazio judizialik ez dagoela ikusita, aitak ezezkoa eman eta ez dute atxilotzen. Arratsalde berean Entzutegi Nazionalean aurkezten da. Azaroaren 16rako hitzordua jartzen zaio.
 - Aritz Urdangarin: Bere burua Entzutegi Nazionalean aurkezten du. Ez diote deklaraziorik hartzen eta azaroaren 16rako hitzordua jartzen diote.
 - Edurne Martinez: Madrilen atxilotzen dute, 9:30ak aldera, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Campusean, hor ikasten ari da-eta. Deklaratu ostean karguekin aske uzten dute.
- Azaroak 14: Atxiloketen ondorengo kontzentrazio eta manifestazioa Altsasun.
- Azaroak 14: Nafarroako Foru Gobernuako presidentek, Uxue Barkos-ek, atxiloketak “beharrezkoak ez” direla adierazten du.
- Azaroak 15: Kontzentrazioa eta manifestazioa Altsasun, atxilotuen kartzelaratzera dela eta.
- Azaroak 16: Ramirez de Alda eta Urdangarin Entzutegi Nazionalean aurkezten dira bigarren aldiz. Lehendabizikoa atxilotu eta kartzelaratu egiten dute; bigarrena karguekin eta astean bitan sinatzeko betebeharrarekin aske uzten dute.
- Azaroak 16: Adin txikikoek ez beste inputatu guztiek identifikazio-saioa eduki dute

Madriilen.

- Azaroak 16: Altsasuko Udaleko Udaltzako adierazpen instituzional bat onartzen du. Familien sentitzea bere egiteaz gain, gertaerak Iruñera bideratzeko instituzioei babesa eskatzen die eta gertatutakoa terrorismotzat jotzearekiko desadostasuna adierazten du.
- Azaroak 16: Laura Perezek, Podemos-eko bozeramaile parlamentaria Nafarroako Ganberan, “herri baten kriminalizazio hau astakeria hutsa” dela azpimarratzen du.
- Azaroak 19: Altsasun prentsaurreko jendetsua egiten da. Bertan alkateak eta Udaleko ordezkariak, herriko eragileak eta atxilotu zein inputatuen gurasoek parte-hartzen dute eta azaroaren 26rako manifestazioa deitzen dute.
- Azaroak 19: Lehenengo kritikak Estatuko hedabideetan. Elisa Beni kazetariak “Altsasukoa terrorismoa ez” dela baieztatzen du. “Hau Zuzenbidezko Estatu batean gertatzea izugarria da”.
- Azaroak 21: Nafarroako Parlamentuak Altsasuko atxilotetak eta ustezko terrorismo akusazioa errefusatu ditu eta Entzutegi Nazionalari eta Nafarroako Entzutegi Probintzialari kasua berraztertze eskatzen die, eskumena Iruñeko 3. Instrukzio Epaitegira itzul dadin.
- Azaroak 23: Garzon epaileak, *Cadena Ser*-eko goizeko saioko elkarrizketa batean, Altsasun bi Guardia Zibilek jasandako eraso terrorismotzat ezin daitekeela har baieztatzen du eta “gehiegizko jardura judiziala” dagoela uste du.
- Azaroak 24: Auzitegi Goreneko Martin Pallin epaile emerituak *Publico.es* egunkarian baieztatzen du Altsasuko gazteen prozesamendua “neurrigabekoa” dela, “errealitate sozialetik kanpo” dagoela eta “terrorismo delituaren larritasunera iristen ez diren eraso batzuen aurrean gehiegizko jardura judiziala” egon dela.
- Azaroak 24: Nafarroako Guardia Zibilaren koronel buruak, Javier Hernandezek, Guardia Zibila Altsasun “bereziki deseroso” ez dela sentitzen adierazten du eta emandako herritarren irudierekiko desadostasuna adierazten du.
- Azaroak 24: Sakanako alkate guztiek Altsasuko herriarekiko elkartasunez prentsaurreko bat egiten dute eta Entzutegi Nazionalari sumarioa prozedura hasi zuen Iruñeko epaitegira itzul dezan eskatzen diote.
- Azaroak 26: Manifestazio isil jendetsua (15.000 eta 20.000 parte-hartzaile inguru) Altsasun, “Altsasu” lelotzat duen pankarta bat daramatelarik udaletxeko hainbat kidek, Javier Olló alkatea buru dutela, atxilotuen familiek eta eragile sozialek. Manifestarien artean Maria Solana, Nafarroako Gobernuko bozeramaile; Ainhoa Aznarez, Foru Parlamentuko lehendakari gisa; eta Adolfo Araiz (EH Bildu), Koldo Martinez (Geroa Bai) eta Laura Pérez (Podemos) parlamentuko bozeramaileak daude. Podemosen sortzaileetako bat izandako Juan

Carlos Monedero, Iruñeko alkatea Joseba Asiron, Izquierda-Ezkerra-ko senataria Iñaki Bernal, ELA eta LAB sindikatuetakako ordezkariak eta Altsasuko PSNko zinegotziak ere bertan daude, baita Sakanako udal guztietako ordezkariak ere, herriaz eman den irudi desitxuratua baztertu, familiak babestu eta urriaren 15eko gertakariekin lotutako gazteei ezarritako badaezpadako neurriak bertan behera uztea eskatzeko.

- Abenduaren 2: Urriaren 15 goizaldeko gertaerekin lotutako neska-mutilen familiek eta “Altsasuarrak eta harro” gizarte-eragileko ordezkari batek Nafarroako Parlamentuko Batzordean parte-hartzen dute, ordezkari-tza instituzionala duten alderdi guztien aurrean.
- Abenduak 14: 1000 pertsona inguru biltzen dituen kontzentrazio isila udaletxe aurrean. Atxilotetak gauzatu eta hilabete bat pasa den honetan, bildutakoak frontoira joaten dira eta elkartasun argazki bat ateratzen dute.
- Abenduak 20: atxilotuen familiak Podemos, En Marea, Compromis, PDECat, ERC, Izquierda Unida, EH Bildu eta EAJ talde parlamentarioekin biltzen dira Kongresuan, gazteen prozesu-egoerarekiko kezka azaltzeko, gertakarien eta ondorio penalen arteko aldea errefusatzeko eta kasua Iruñeko Entzutegi Probintzialaren eskumena izatera itzul dadin eskatzeko.
- Abenduak 20: Kartzelaratutako gazteetatik lau (Aratz Urrizola, Jon Ander Cob, Iñaki Abad eta Julen Goikoetxea).aske uzten dituzte. Adur Ramirez de Aldak, Oihan Arnanzek eta Jokin Unamunok preso jarraitzen dute.
- Abenduak 21: azaroaren 14tik, hain zuzen ere atxiloteten egunetik, Altsasuko udaletxe aurrean kontzentrazio isilak egin dira **egunero**, 19.00etatik 19:30era. Egun honetatik aurrera, **ostiralero** antolatuko dira.
- Abenduak 24: Egubera Taldeak (Olentzero), Etorkizuna Dantza Eskolak, Xurrut-ek (Tabernarien elkarte), ATH-k eta Pilotajauku-k (Pilota-eskola) Abenduak 28: Informazio-ekitaldia festa giroan, herrian zehar eginiko kalejira, gauzatzen da.
- Abenduak 30: elkartasun-eguna antolatzen da Bilbora, ESAIT-en partidua dela-eta.
- Abenduak 31: Dantzaleku Sakana kirol-elkartek elkartasun-ekitaldiak antolatzen ditu.
- Urtarrilak 5,6,7,8: Altsasuko Mendigoizaleak Taldeak, Xurrut-ek, Sakanako Trikitrilariak eta Pilotajaukuk elkartasun-ekitaldiak antolatzen dituzte.
- Urtarrilak 8: Madrilgo Tirso de Molina plazan bilkura egiten da “Altsasun nahi ditugu” lelopean.

- Urtarrilak 15: Porrotx pailazoak antolaturiko elkartasun-ekitaldia herriko Burunda pilotalekuan.
- Urtarrilak 21: Elkartasun-eguna, herriko elkarte gastronomiko guztiek antolaturiko herri-bazkaria eta ekitalditxoak egunean zehar, festa-giroan.
- Urtarrilak 27 : Kultur eta gizarte-eragileek manifestua, deklarazio bateratua, aurkezten dute Sakana mailan Iortia kultur-etxean, Sakanako udal guztien alkateen aurrean, aretoa lepo dagoela (300 lagun).

- Urtarrilak 28: Soto del Real kartzelara bidaia gauzatzen da bertan espetxeratuak dauden gazteei elkartasuna adierazteko (bi autobus eta auto partikularrak).

- Urtarrilak 31: 214 abokatu, legelari eta EHU-ko irakasleek sinaturiko manifestua aurkezten dute Iruñeko Katakarak-eko aretoan.

- Urtarrilak 14: gazteen atxiloketen hiru hilabete betetzen diren egun honetan, Altsasu herri osoko argiteria itzaltzen da gaueko 20:15etatik 20:30etara eta herriko hiru plazetan kandelak pizten dira elkartasuna adierazteko.

- Urtarrilak 19: Dantzaleku Sakana kirol-elkarteak elkartasun-krosa antolatzen du.

Otsailak 2: Kultur eta gizarte-eragileek manifestua, deklarazio bateratua, aurkezten dute Euskal Herri mailan Iruñeko Tres Reyes hoteleko Roncesvalles aretoan, hedabideen aurrean.

- Otsailak 11: Altsasu herrian hain erroturik dagoen Santa Ageda festa-egunean, elkartasun-zortziko (bertako dantza) erraldoia dantzatu zen *etxean nahi ditugu* lelopean.

- Otsailak 13: Nafarroako Auzitegi aurrean bilkura egiten da “Altsasukoak aske” lelopean Iruñerriko guraso talde batek antolaturik.

- Otsailak 16: Altsasuko Gazte Asanbladak eta Pilotajauku Pilota Eskolak antolaturiko pilota-txapelketa aurkezten da non gazte atxilotuen askapena aldarrikatzen den, txapelketa bukaera arte, alegia, maiatzak 6ra arte, partidu bakoitzean errepikatuko den aldarrikapena.

- Otsailak 22: Espetxeratzearen 100 egun betetzear direla-eta, Altsasuko udalak mozio bat onartzen du kartzelan dauden herriko hiru gazteak eskatuz.

-
- Otsailak 24: Espetxeratzearen 100 egun bete direla-eta, Iruñeko Sarasate pasealekuan, Parlamentu aurrean, 2000 lagunek osaturiko bilkura egiten da.
-
- Otsailak 28: Ihauteriak herrian. Brindisa eta argazkia egiten da etxeratuen omenez. Hiru “momotxorro”k betetzen dute hiru gazte atxilotuen lekua herri-bazkarian.
-
- Martxoak 3: Gazte inputatuen gurasoek idazkia plazaratzen dute salatzeo kasua mendekuak eta zigorrak bideratzen dutela.
-
- Martxoak 4: Ihauteriak herrian: Piñata eguna: mozorrotzeko gai orokorra zirkoa da salatzeo herria pairatzen ari den montaia.
-
- Martxoak 7: Aritz Urdangarin libre uzten dute Ángela Murillo, Teresa Palacios eta Carmen Paloma González magistratuek, gazteak iseka soilik egin zuela argudiatuz.
-
- Martxoak 8: Nafarroako Auzitegi aurrean, eguerdiko 12:30ean, bilkura egiten da “Altsasu: ez da terrorismoa” lelopean gazteen gurasoek deiturik.
-
- Martxoak 14: atxiloketen lau hilabete betetzen direla, *kazerolada* burrunbatsua antolatzen da protesta gisa Altsasun.
-
-

3. ARGUDIO JURIDIKOAK

Honako atal honetan, aztertuko dugu zer arrazoi juridiko direla eta inputatu dituen Auzitegi Nazionalako instrukzioko 3. epaitegi zentralak Altsasuko hamaika gazte; egotzitako delituak hauek dira, guztiak ere Zigor-kodekoak: 147. artikulua eta hurrengoek ezartzen duten lesio-delitua, 550. artikuluko atentatu-delitua, 510. artikuluko gorrotoa eragitea eta 573. artikuluko terrorismo-delitua.

Terrorismo-delitua leporatzean, auzia Auzitegi Nazionalan bideratu da, eta ez berezko epailea aritzen den lekuan, hau da, Iruñeko Probintzia-azitegian. Halaber, oinarria da gazte horietako zazpiti baldintza gabeko kartzelako kautela-neurria ezartzeko.

I. Instrukzioa Auzitegi Nazionalera helaraztea.

Instrukzioa Auzitegi Nazionalera helarazi eta zigor-tipifikazio eredugarri bat ezartzeko auzibidetik kanpoko bultzada bat dagoelako hipotesia indartzen du gertaeren segidak. Hain zuzen ere, Foruzaingoaren atestatuak eta Guardia Zibilaren sakontzeko eginbideek edo lehen txostenak ez dute ikusten bi guardia zibilen aurka lintxamendu edo jipoi antolaturik egon zenik, ezta terrorismo-deliturik ere. Gertatutakoa baino astebete beranduago helarazi zen Guardia Zibilaren lehen txostenak Foruzaingoaren atestatu berresten du; ordurako, atestatu hori Mari Paz Benito epaileak zuen, hau da, Iruñean, agintaritzaren agenteen aurkako atentatu- eta lesio-delituengatik auzia bideratzen zuen epaileak. Txosten horren arabera, badaude balizko gorroto-delitu baten zantzuak. ^[IU1] (Noticias de Navarra, 2016-10-25: “Los informes policiales no aprecian linchamiento organizado en Alsasua^[IU2]”¹).

Hedabideek bultzatutako neurritz kanpoko arreta-egoera batean, eta urriaren 19an COVITE antolakundeak Auzitegi Nazionalean aurkeztutako salaketa zela eta, urriaren 25ean, Auzitegi Nazionaleko instrukzioko 3. epaitegi zentralako magistratuak ikertutako gertaeren eskumena onartu zuen. Egun batzuk lehenago, hilaren 22an, COVITEko kide batzuk agertu ziren, poliziaren eta hedabideen muntaia salatzeko Altsasun egin zen manifestazio jendetsuaren hasieran; horrek, istiluak eragin ez bazituen ere, sumin-egoera bat sortu zuen eta hainbat hedabidek gertaera batzuen eta herri baten neurritz kanpoko irudi itxuraldatua areagotzeko baliatu zuten.²

¹ Ikus:

<http://www.noticiasdenavarra.com/2016/10/25/sociedad/navarra/los-informes-policiales-no-aprecian-linchamiento-organizado-en-alsasua>

² Ikus:

<http://www.noticiasdenavarra.com/2016/10/23/politica/navarra/unas-2000-personas-salen-a-la-calle-en-alsasua-para-denunciar-el-montaje-policia>

Hainbat legelari entzutetsuk esan dute auzi horren eskutik etorri den jitoa “neurritz kanpoko epaile-jarduna” dela, baita “gehiegizkoa eta gizarte-errealitatek kanpoko” ere³.

Ondoren, hainbat autotan, Auzitegi Nazionaleko epaitegi zentralak Altsasuko OSPA antolakundearen salaketa-ekimenekin lotu zituen urriaren 14an gertatutakoak, eta, jarraian, desmilitarizazioa eta beste polizia-eredu bat eskatzen dituzten ekimenak, antolakunde politikoen aldarrikapenekin, baita ETA antolakundearen errebindikazioekin ere.

Horietako lehenengoa, OSPA antolakundearekin egindakoa alegia, egoeraren araberako eta espekulatibotzat jo behar da; izan ere, epaitegietan bideratzen ari diren gertaeretan ustez esku hartu zutenak OSPAko kide direlako ustean eta urriaren 17an egindako prentsaurrekoan oinarritzen da. Prentsaurreko horretan, komunikabideek egindako gertaeren desitxuratzeta eta polizia-erakustaldi handiak egin zituen Guardia Zibilaren portaera salatu zituzten hainbat herritarrek, baita herria desmilitarizatzeko eskatu ere. Azpimarratu behar da, duela bost urte sortu zenetik, OSPA antolakundeak egindako ekimenak adierazpen-askatasunaren baitan kokatzen direla, bide baketsuen bidez baino ez direla egin eta agintari eskudunek eman beharreko lege-baimenak jaso dituztela.

Bigarren lotura horri dagokionez, hots, antolakunde politikoen eta ETA antolakundearekin egindakoei dagokienez, adierazi behar da ez dagoela loturarik OSPA mugimenduaren eta ETAREN artean. Autoetan ezartzen diren loturak aldarrikapen batean bat egitearen ondorio dira eta hori, bestalde, zilegi da eta ideologikoki askotarikoak diren legezko beste hainbat antolakunde politikok partekatzen dute, hala nola EAJk⁴ edo EH Bilduk. Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrak berak ere Estatuko Segurtasun-indarrek atzera egin zezaten eskatzen zuten ebazpenak onartu ditu; adibidez, 2013ko ekainean⁵.

II. Terrorismo-delitu gisa tipifikatzea.

Terrorismo-delitu bat dela eta ikertutako pertsonak inputatzean, ez da argitzen terrorismo-delitua erasoak berak, testuinguruak ala biek aldi berean osatzen duten, baina aukera horiek guztiak

eztabaidagarriak dira Jaime Montero Román abokatuak azaroaren 19an Público⁶ egunkarian argitaraturiko iritzi-artikulan argudiatzen duen moduan.

<http://www.elmundo.es/espana/2016/10/22/580b50c9e5fdead1628b4689.html>

<http://www.naiz.eus/eu/actualidad/noticia/20161022/miles-de-personas-salen-a-las-calles-de-alsasu-para-recha-zar-un-nuevo-montaje-policial>

3 Ikus: <http://www.publico.es/politica/martin-pallin-procesamiento-nueve-alsasua.html>

4 Ikus: http://ccaa.elpais.com/ccaa/2013/09/24/paisvasco/1380053924_067660.html

5 Ikus: http://ccaa.elpais.com/ccaa/2013/06/13/paisvasco/1371114055_752952.html

6 Ikus: <http://blogs.publico.es/otrasmiradas/7186/alsasua-terrorismo-o-sobreactuacion-judicial/>

“El **delito de terrorismo** exige la comisión de un **delito grave** (en términos jurídicos, no morales), por un lado, y que además dicho delito lo sea, en lo que al presente caso concierne y a pesar de la falta de precisión a este respecto del auto de prisión, para “obligar a los poderes públicos a realizar un acto o a abstenerse de hacerlo” (referido al traslado de los Guardias Civiles fuera de Navarra) o para “provocar un estado de terror en la población o en parte de ella” (en concreto, en los Guardias Civiles destinados en la localidad, y sus familias).^[IU4]”

“En los hechos relatados por los autos de prisión falla la primera de las premisas, pues **ni el delito de atentado ni el de lesiones son delitos graves** (castigados con una pena máxima que exceda de los cinco años de prisión). En cuanto al delito de incitación al odio del art. 510 C.P., no sólo no es grave, sino que tampoco está comprendido en el catálogo de delitos que permitirían considerar su comisión como terrorismo.^[IU5]”

“Si bien la anterior reflexión permite descartar plenamente la concurrencia de un delito de terrorismo, adicionalmente ha de señalarse, si se entiende que es la agresión a los agentes lo que motiva el intento de aplicación de este delito, que parece muy aventurado afirmar que con dicha agresión los investigados pretendían coaccionar a los poderes públicos, o provocar un estado de terror en la población o parte de ella, y de hecho la Instructora no lo dice expresamente^[IU6].”

“Si es el contexto lo que se afirma resulta ser “terrorismo”, lo que fallaría en este caso es la **falta de definición de una actividad delictiva**, pues las pintadas, las manifestaciones, las pancartas o el uso de las redes sociales, tal y como señala el auto, para lograr la adopción de una decisión política de retirar a las Fuerzas de Seguridad del Estado del territorio, sin otro aditamento, parece una actividad lícita, por más que pueda cuestionarse en términos políticos^[IU7].”

“En este sentido, el auto sí que explicita que se busca “provocar inseguridad y miedo” entre los Guardias Civiles, y define el movimiento que llevan a cabo esa estrategia como “grupúsculos violentos”, pero al margen de la presunta agresión investigada, **no concreta ningún acto de violencia**, ni siquiera de otra naturaleza pero que pueda reputarse ilegal, que hayan realizado los investigados, o incluso los grupos a los que afirma éstos pertenecen, y que sirva a dicho ilegítimo propósito^[IU8].”

Gai horretan sakontzeko, azpimarratu daiteke Espainiako sistema judizialean darabilten *terrorismo* kontzeptuaren definizioak eztabaidagarritzat jo edo, argiro, zalantzatan jarri dutela nazioarteko hainbat erakundek, hala nola Nazio Batuek. Horrela Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Sustatzeko eta Babesteko NBERen Errelatoreak, Martin Scheinin^[IU9] ek, esaterako, ohartarazi zuen arriskua zegoela «gutxika *terrorismo* nozioa populazio orokorraren aurkako indarkeria-ekintzak ez diren eta horiekin nahikoa harreman ez duten jardunei hedatzeko». Hau gaineratu zuen: «behin malda horretan behera hasita, eskubide asko urratzeko

arriskua dago^[IU10] » (Europa Press, 2008-05-14)⁷. Bestetik, Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak, 2008. urtean, adierazi zuen kezkatuta zeudela terrorismoaren definizioek, potentzialki, hedapen handiegia izan baitzezaketen barne-zuzenbidean, batez ere, Espainiako Zigor-kodeko 572. artikulutik 580.era ageri direnak; izan ere Itunean adierazitako zenbait eskubide urratzera eraman zezaket^[IU11] eta Estatu Espainolari eskatzen zioten “terrorismoa era murriztailean definitzeko, terrorismoaren aurkako neurriek Itunarekin erabat bateragarriak izan daitezten” (CCPR/C/ESP/CO/5/ 2008ko urriaren 27).⁸

Duela gutxi, terrorismo yihadistari aurre egiteko helburu bakarraz, terrorismo-delituaren definizioa aldatu zuten 2/2015 Lege Organikoa onartuz, martxoaren 15ekoa, 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor-kodeari buruzkoa, aldarazten duena, terrorismo-delituei dagokienez”. Definizio berri hori Altsasuko gertaerei aplikatu zaie, eta Nazio Batuetako bost errelatorek kritikatu dute. Maina Kiai, era baketsuan biltzeko eta elkartzeko eskubideei buruzko errelatorea; David Kaye, iritzi- eta adierazpen-askatasunetarako eskubideak sustatzeari eta babesteari buruzko errelatorea; Ben Emmerson, terrorismoaren aurkako borrokan giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak sustatzeari eta babesteari buruzko errelatorea; François Crépeau, migratzaileen giza eskubideei buruzko errelatore berezia; eta Michel Forst, giza eskubideak babesten dituztenen egoerari buruzko errelatore berezia, aditu independenteen arabera, “lege-proiektuko testuak definizio lausoak edo anbiguoak ditu, eta definizio horiek bide ematen diote aginpideek legea neurritz kanpo edo nahi duten moduan aplikatzeari”, eta “idatzita dagoen moduan, terrorismoaren aurkako legeak terrorismoa ez diren jardunak kriminaliza ditzake eta, beste ondorio batzuen artean, neurritz kanpoko murrizketak jar diezazkioke adierazpen-askatasunari”⁹

III. Gorrotoa eragiteko delitu gisa tipifikatzea.

Zigor-kodearen 510. artikuluan bildutako gorrotoa eragiteko delituari dagokionez, Jaime Montero¹⁰ abokatuaren arrazoiketarekin jarraituz, ez da argi gelditzen egozpena “erasoagatik ala adierazten den eta ‘OSPA mugimendua’ kolektiboari egozten zaion etsaitasun-egoerako testuinguru sozialarengatik den, baina bi kasuetan ere egozpena bidegabea da” jarraian azaltzen den moduan.

“Agintaritzaren agente izateagatik irainen eta agresioen bidez guardia zibil bati erasotzea atentatu-delitua da eta, beraz, ezin da aldi berean gorrotoa eragiteko

⁷ Ikus:

<http://www.europapress.es/nacional/noticia-relator-onu-pide-delitos-terrorismo-no-sean-competencia-unica-au>

diencia-nacional-20080514180127.html

8 Ikus: <http://www.idhc.org/arxius/noticies/Proyecto%20de%20Observaciones%20Finales%20del%20Comite%20de%20Derechos%20Humanos.pdf>

9 Ikus: <http://www.ohchr.org/EN/NewsEvents/Pages/DisplayNews.aspx?NewsID=15597&LangID=S>

10 Ikus: <http://blogs.publico.es/otrasmiradas/7186/alsasua-terrorismo-o-sobreactuacion-judicial/>

delitua izan, horrela, ekintza bera bi aldiz zigortuko litzatekeelako; hori geure zuzenbidean debekatuta dago eta **non bis in idem printzipio** gisa ezagutzen da”.

“Gainera, **tipifikatze-arazo** larria dago Z.K.ko 510. artikulua erasoari edo erasoaren “testuinguruari aplikatzeko”; izan ere, gorrotoa eragiteko, eraso arrazoi hauengatik egin behar da: talde bat edo taldeko kide edo delitu-biktimak izateagatik, edo ideologia, erlijio, sinesmen, familia-egoera, etnia, arraza, nazio, jatorri nazional, sexu, sexu-orientazio edo -identitate, genero, gaixotasun edo desgaitasun jakin bat izateagatik. **Zerrenda horretan ez dira biltzen lanbide jakin bat izateagatik egindako erasoak**, edo funtzionarioak izateagatik edo antzekoengatik egindakoak, eta legea ezin da era zabalean interpretatu, Zuzenbide Penalak debekatzen baitu.”

“Aurrekoaren bidez esan nahi dut, nahiz eta indarkeriak jatorri ideologikoa izan, arauak eskatzen duela erasoaren biktima den taldearen edo pertsonen atxikitze ideologikoaren ondorio izatea eraso. Beste era batera esanda, pertsona bati bere sexu-orientazioa dela eta erasotzen bazaio, jatorri ideologikoa duen eraso bat izango dugula berdin-berdin (homofobia ideologiatzat jo badaiteke), baina Z.K.ko 510. artikulua aplikatzea biktimaren sexu-orientazioak eragingo du, eta ez erasotzailearen atxikitze ideologikoak.”

IV. Baldintza gabeko kartzelako kautela-neurria.

Baldintza gabeko kautela-neurriak salbuespeneko izaera du eta inputaturiko pertsona prozesuan egongo dela bermatzeko aplikatu behar da, besteak beste, ihes egiteko arriskua dagoenean eta frogak ezkututzea, aldatzea edo suntsitzea saihesteko.

Honako auzi jakin honetan, azaroaren 14ko atxiloketak Guardia Zibilak egin zituen, agindu judizialik gabe eta etxebizitzak eta beste higiezin batzuk arakatu gabe. Ikertutako gertaerak jazo eta hilabete beranduago eta araketarik egin gabe, zentzuzkoa da pentsatzea ez dagoela frogak ezkutatzeko, aldatzeko edo suntsitzeko arriskurik.

Bestetik, ihes egiteko arriskuari dagokionez, Iruñeko Probintzia-azitegian eta Auzitegi Nazionalean jaso zuten auzipetuek borondatez aurkezteko aurretiko jarrera zutela. Hain zuzen ere, Jokin Unamunok eta Aritz Urdangarinek hilabete zeramaten Iruñeko 3. Probintzia-azitegian aurkezten. Adur Ramirez de Alda hiru aldiz aurkeztu zen, horietako bi Auzitegi Nazionalean bertan. Gainerakoak ere urriaren 26an agertu ziren borondatez Nafarroako Probintzi-azitegian.

Deigarria da Auzitegi Nazionaleko magistratuak ihes egiteko arriskua adierazteko erabilitako arrazoiketa, oinarri hartzen baitu “senideek eta inputatuek osatzen duten kolektiboak laguntza nabaria ematen dietela ihesa egiteko eta Espainiako auzitegien jardunetik urrun mantentzeko (Azaroaren 14 Autoa). Jurisprudenzian,

aurkako zentzuan argudiatu izan da, errotuta egoteak aditzera ematen baitu ihes egiteko arriskua txikiagoa dela, eta kartzela saihesteko zioa izan ohi da.

Azkenik, delituek errepikatzeari dagokionez, argudiatzen da arrisku hori badagoela inputatuak,

ustez, herriko OSPA kolektibokoak baitira, baina kolektibo horri ez zaio izaera bortitzeko ekintza jakinik leporatzen.

V. Proporzionaltasun-printzipio konparatua.

Zuzenbide Penalean, proporzionaltasun-printzipioa funtsezkoa da. Hain da horrela, non legelariak ados dauden proporzionaltasun-printzipioa urratzeak legaltasun-printzipioa arriskuan jartzen duela. Legelari nabarmenek agerian jarri dute auzi honetan proporzionaltasun-printzipioa urratu dela¹¹.

Printzipioa urratu dela nabaria da auzi hau eta antzekoak alderatuta, oso bestelakoak diren trataera eta ondorioak izan baitituzte. Kasu honetan, zerbitzuz kanpoko ordena-indarrei eraso zitzaizen, parte medikoen arabera, lesio arinak izan zituzten, baldintza aringarrietan; terrorismo-delituarengatik, gorrotoa sustatzeko delituarengatik, agintaritzaren aurkako delituarengatik eta lesioengatik auzipetzeko eskatzen da, eta zigor gogorak planteatzen dira, baita 10 eta 15 urte bitarteko kartzela ere. Jarrian, konparazioa egiteko aukera ematen duten beste kasu batzuk bildu dira, argigarriak izateko helburu bakarraz.

- Eraso zerbitzuz kanpo zeuden bi guardia zibili^[12] Benicassimen. Lesioak: astebete baino gehiagoko ospitalizazioa aurpegiaren zenbait zati hautsita izateagatik, eta zauriak betazalean; horrek kirurgia behar izan zuen. Zigorra: 14 hilabeteko kartzela, deformazioak eragin zituen lesio-delitu batengatik. 300 eta 450 €-ko isunak lesioen faltagatik eta 90 000^[13] €-ko kalte-ordainak.

Iturria:

http://www.elperiodicomediterraneo.com/noticias/sucesos/condenan-televisivo-rafa-mora-dar-paliza-benicassim_973383.html

- Eraso zerbitzuan zegoen guardia zibil bati Caceresen. Zigorra: urtebeteko kartzela, 3 000 €-ko isun batekin ordezkagarria, agintaritzaren aurkako atentatu batengatik, berrerortze larrigarriarekin.

Iturria:

http://www.elperiodicoextremadura.com/noticias/caceres/condenado-agredir-a_gente-guardia-civil_636526.html

¹¹ Martín Pallín adierazpenak, Auzitegi Goreneko magistratu emeritua: <http://www.publico.es/politica/martin-pallin-procesamiento-nueve-alsasua.html> Baltasar Garzón epaile ohiaren adierazpenak: http://cadenaser.com/programa/2016/11/23/hoy_por_hoy/1479886287_865213.html

- Eraso zerbitzuan zegoen guardia zibil bati Caceresen. Zigorra: urtebeteko kartzela, agintaritzaren aurkako erasoarengatik, 450 €-ko isuna eta 300 €-ko kalte-ordaina.

Iturria:

http://www.elperiodicoextremadura.com/noticias/caceres/ano-prision-agredir-guardia-civil_366927.html

- Erasoa zerbitzuan zegoen guardia zibil bati Plasencian. Lesioak: lokadura eskuineko sorbaldan, tratamendu kirurgikoa, eta 214 eguneko sendatze-aldia. Zigorra: bi urte eta hamar hilabeteko kartzela eta 19 000 €-ko kalte-ordaina.

Iturria:

<http://www.hoy.es/caceres/201607/25/casi-tres-anos-carcel-20160725000802-v.html>

- Eraso udal-poliziako hainbat agenteri Iruñean. Lesioak: artritisa hatz nagian, makadura anitzak eta hozkadak. Zigorra: 4 hilabeteko kartzela, agintaritzaren aurkako delituarengatik eta 100 €-ko isunak.

Iturria: <http://www.noticiasdenavarra.com/2016/12/11/sociedad/navarra/cinco-detenido-os-por-agredir-a-policias-municipales-en-un-piso-de-azpilagana>

[IU1]ez dakit ba ezezkoa ez den esaldi hori

[IU2]Aipua denez, nik bere horretan utziko nuke, baina itzuliz gero itzulpena dela adierazi behar da.

Hementxe itzulpena:

Polizien txostenek ez dute antolatutako lintxamendurik hautematen Altsasun

[IU3]gazteleraz ere letra larriz daude hilabeteen izenak eta ez dute behar

[IU4]aurrekoan bezala, itzuli ala ez itzuli, zuen erabakia da eta, itzulpena jarriz gero, itzulpena dela adierazi behar da; bestetik, bi komatxo berdin ageri dira paragrafoaren barruan eta hori ez da ortotipografikoki zuzena. Barrukoek komatxo latinoak edo behar dituzte.

Hala ere, hementxe itzulpena:

Terrorismo-delituak delitu larri bat egitea eskatzen du batetik (alde juridikotik begiratuta, eta ez alde moraletik) eta, gainera, delitu horrek, honako auzi honetan eta, horri dagokionez, kartzela-autoak zehaztasunik izan ez arren, helburu izan behar du “aginte publikoak ekintza bat egitera edo egiteari uko egitea behartzea” (kasu honetan, Guardia Zibilak Nafarroatik kanpo eramatea) edo “izu-egoera bat eragitea populazioarengan edo populazioaren zati batengan” (zehazki, herrira igorritako guardia zibilen eta horien familiengan).

[IU5]Kartzela-autoek azaltzen dituzten gertaeretan, lehenengo premisak huts egiten du; izan ere, **atentatu- eta lesio-delituak ez dira delitu larriak** (horiek eskatzen dituzten kartzela-zigorrek ez baitira bost urtetik gorakoak). Z.K.ko 510. artikuluko gorroto-delituari dagokionez, larria ez izateaz gain, ez dago terrorismotzat jo daitezkeen delituen zerrendan.

[IU6]Nahiz eta aurreko gogoetaren bidez erabat baztertu daitezkeen terrorismo-delitua egon zenik, agenteak eraso izanak delitu hori aplikatzea eragiten duela ulertuz gero, adierazi behar da oso

arriskutsua dela baieztatzea ikertutakoek erasoaren bidez aginte publikoak hertsatu nahi zituztenik edo populazioarengan edo horren zati batengan izu-egoera bat eragin nahi zutenik, eta, hain zuzen ere, instrukzio-epaileak ez du halakorik berariaz adierazten.

[IU7]Aldiz, testuingurua izango balitz “terrorismoa”, kasu horretan, **delitu-jarduera argirik ezak** huts egingo luke, gehigarririk egon ezean, zilegi baita, autoak adierazten duen moduan, pintaketak, manifestazioak, pankartak edo gizarte-sareak erabiltzea Estatuko Segurtasun-indarrak eskualdetik kentzeko erabaki politikoa har dadin, nahiz eta ikuspegi politikotik ados ez egon.

[IU8]KOMATXOEN ARAZOA DAGO PARAGRAFO HONETAN ERE

Zentzu horretan, autoak adierazten du guardia zibilen artean “ziurtasunik eza eta beldurra eragitea” bilatzen dela eta estrategia horri jarraitzen dion mugimendua “talde bortitz” gisa definitzen du, baina, ikertutako ustezko erasoaz gain, **ez du** ikertutakoek edo autoaren arabera ikertutakoek osatzen dituzten taldeek egindako beste **indarkeria-ekintzarik zehazten**, ezta legez kanpoko helburu hori bilatzen duen eta ilegaltzat jo daitekeen bestelakorik ere.

[IU9]gaztelerazkoan bigarren koma bat falta zaio izen honen atzetik

[IU10]itzulpenak direla esan behar da. Gero ere badaude beste batzuk

[IU11]komatxoak kendu ditut, nahita

[IU12]kontuz, hurrengo adibidean letra larriz dago

[IU13]Orain, berez, zuriune bat erabili behar da eta ez puntua, euskaraz zein gazteleraz. Bateratu testuko guztiak eredu batera edo bestera

4. Adierazpen instituzionalak eta elkartasun-keinuak

Aste hauetan zehar, babes eta elkartasun adierazpen ugari jaso ditugu. Pertsona askoren iritziak bildu ditugu, baita jazotako gertakariekin bat egiten ez duten pertsonen ikuspuntuak ere. Denek gertakariak “ekintza terrorista” moduan izendatzearekin, diligentziak Audientzia Nazionalera lekualdatzearekin, zazpi gazteen espetxeratzearekin eta gazteen eskubideen bortxaketarekin desadostasuna erakutsi dute. Gainera, komunikabide zehatz batzuek Altsasuko herriaren irudia larri kaltetu dute.

Gertakariak suertatu zirenetik, egunero izan ditugu kale-agerraldi jendetsu eta pluralak Altsasuko udaletxearen aurrean. Salaketa eta elkartasun-manifestazio ezberdinen artean, udaletxeak (Geroa Bai, EH Bildu, Goazen Altsasu eta PSN-ko zinegotzien babesarekin) auzipetuen familia-artekoek eta “Altsasuarra eta harro” plataformak deituriko baterako manifestaldia da azpimarragarria. Honakoa Sakanako udaletxe guztien, ikastetxeen, merkatarien, profesionalen eta

elkarteen atxikimendua eta babesa izan zuen. Azaroaren 20an ospatu egin zen eta 15.000-20.000 lagun bildu zituen. Kontuan izanik Altsasuk 7.500 biztanle dituela, argi dago eremuan inoiz izandako manifestaldi jendetsu eta pluralena izan zela.

<http://www.naiz.eus/eu/mediateca/video/multitudinaria-manifestacion-en-alsasu>

Deklarazio instituzionalen artean, udaletxe askotako udalbatzetan adosten ari diren akordioez gain, aipagarriak dira Nafarroako Parlamentuaren deklarazioa, 2016ko azaroaren 21ean onartua, eta Altsasuko udaletxearen deklarazioa, 2016ko azaroaren 16an onartua.

NAFARROAKO PARLAMENTUAREN DEKLARAZIO INSTITUZIONALA

Nafarroako Parlamentuaren bozeramaile-biltzarrak Altsasun eta Nafarroa osoan bakea eta elkar bizikidetzaren aldeko Nafarroako Parlamentuaren konpromisoaren deklarazioa onartu egin du. Deklarazioa G.P, Geroa Bai, GP.EH Bildu Nafarroa, G.P. Podemos-Ahal Dugu eta Izquierda-Ezkerrako A.P.Fa –k aurkeztua izan zen.

Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Izquierda-Ezkerra onartutako deklarazioaren alde bozkatu dute. Lehen puntua guztien adostasunez onartua izan da. UPN-k eta PSN-k 2, 3,5,6 eta 7.puntuen kontra egin dute bozka eta 4.puntuaren aurrean abstentzioa mantendu dute. PPN-k 2tik 7rako puntuen aurkako boza eman du.

Deklarazioak honakoa dio:

“1- Nafarroako Parlamentuak Altsasun eta Nafarroa osoan bakea eta elkar bizikidetzaren aldeko konpromisoa adierazten du.

2- Betiere erabaki judizialak errespetatuz, Nafarroako Parlamentuak haren desadostasuna aditzera ematen du, terrorismo delitutzat hartutako gertakarien kalifikazio penolarekin ez baitator bat. Adierazi duenez, halako kalifikazioak neurrigabeko zigor konplimendua ekar diezaike gazteei. Arrazoi horrengatik, Nafarroako Parlamentuak Audientzia Nazionaleko Epaitegi Zentralari, Nafarroako Audientzia Probintzialari eta Fiskaltza Jeneralari kasua berriz aztertzeke eskatzen dio,

eskuduntza Iruñeko Instrukzio Auzitegiari bueltatzeko helburuz.

3- Nafarroako Parlamentuak atxiloketen eta aurreikusitako neurrien aurrean bere desadostasuna erakusten du, bai eta Altsasuko zazpi gazteen espetxeratzearen aurrean ere. Horrekin batera, gehiegizko, justifikatu gabeko eta beharrezkoak ez diren neurriak hartu direla adierazten du, are gehiago kontuan izanik gazteetako batzuk boluntario moduan aurkeztu zirela, alde egiteko inongo intentziorik gabe. Horren guztiaren ondorioz, gazteen askatasuna eskatzen da.

4-Nafarroako Parlamentuak Altsasuko herriari atxiki zaion irudi distortsionatuari errefus egiten dio, eta errealitatearen oso bestelakoa dela aitortzen du. Altsasu udalerrri plurala da, pertsona ezberdinen arteko elkarbizitzara ohituta dagoena.

5- Nafarroako Parlamentuak “Altsasu” goiburuarekin, Altsasun, azaroaren 26an, larunbatarekin, izango den manifestazio isila sostengatzen du.

6-Nafarroako Parlamentuak Adingabeko Defendatzaileari beharrezko neurri egokiak har ditzala eskatzen dio, bi adin txikiko gazteen eskubideak errespetatuak izan daitezen.

7- Nafarroako Parlamentuak Altsasuko udaletxeari, Audientzia Nazionaleko Auzitegi Zentralari, Audientzia Probintzialari, Fiskaltza Jeneralari eta Adingabeko Defendatzaileari Deklarazio Instituzional honen kopia helaraztea adosten du.

ALTSASUKO UDALETXEAREN DEKLARAZIO INSTITUZIONALA:

Altsasuko Udaltzarra, 2016ko azaroaren 16an bildua, hurrengo Deklarazio Instituzionala adosten du.

1.- Aurreko astelehenean, azaroak 14an, atxilotu zituzten gazteen familien sufrimendua aditzera eman eta bereganatu egiten dugu. Familia artekoak babesik gabe sentitzen dira eta beraien seme-alabei egokitu zaien izarigabeko gertakarien ondorioz larrituta daude. Honako gertakizunen aurrean, gazteei neurrigabeko zigorrak ezartzearen beldur dira, izan ere, Audientzia Nazionalak gertatutakoa ekintza terroristatzat izendatu baitu.

2.- Horren aurrean, Nafarroako instituzio guztien (zuzendaritza-batzorde, batzorde legegile edota judizialen) babesa eskatzen dugu, gertakariak Iruñeako Instrukzio Auzitegian epaituak izan daitezten. Izan ere, bertan hasi zen instrukzioa eta, horrez gain, bertan dago Polizia Foralaren txostena, Foruzaingo-ko poliziak izan zirelarik momentuan gertakarien ardura hartu zutenak eta, hortaz, gertakari hauen eskudunak direla pentsatzen dugu.

3.- Betiere erabaki judizialak errespetatuz, Altsasuko udaletxeak haren desadostasuna aditzera ematen du, terrorismo delitutzat hartutako gertakarien kalifikazio penalarekin ez baitator bat. Horrez gain, atxiloketen eta hartutako neurrien kontra ere azaltzen da, kontsideratzen baitu ez direla beharrezkoak.

4.- Inoiz gertatu behar izan ez ziren gertakari batzuen ondorioz, kaltea jasan duten pertsona guztiei, baita Altsasuko herriari (horien aurrean izandako jokabideagatik), oro har, gure elkartasuna azalarazi nahi diegu.

5.- Altsasuko udaletxeak gure udalerrriaren elkarbizitzaren eta bakearen alde egiten du, elkarrizketan eta jokatzeko era arduratsuan oinarrituz.

6.- Altsasuko udaletxeak bere herriari atxiki zaion irudi kaltegarriari errefus egiten dio, errealitatearen oso bestelakoa dela aitortzen duelarik. Gainera, komunikabideetan gazte eta adin txikikoen inguruan hedatu den informazio pribatuaren aurka egiten du.

7.- Altsasuko udaletxeak herritar guztiak azaroaren 26an, eguerdiko 13.00etan, ospatuko den manifestaziora deitzen ditu, "ALTSASU" goiburua eramango duena.

5. ONDORIOAK:

Arestian aipatutako guztia kontuan izanik, familia guztien izenean aditzera eman nahi dugu:

- Ororen gainera, justiziak proportzionatua izan behar duela, horrela ez izatekotan ez baita justizia. Terrorismoari lotutako kartzela-zigorren eskaera guztiz neurritz kanpoko delak iruditzen zaigula, goizeko ordu txikitan, herriko taberna batean, berriaz suertatu ez zen eta lesio arinak eragin zituen gertakari baten ondorioa izateko.
- Gertakarien larritasuna aintzat hartuta eta inoiz gertatu behar ez zen zerbait izan zela onartuta, honako jazoera Nafarroako Epaitegian epaitua izatearen beharra aldarrikatzen dugula.
- Auzipetuen identitateen hedatzeak, bi adin txikikoenak barne, zalantzan jartzen duela gazteen errugabetasuna eta aldi berean, haien eskubideen bortxaketa larria inplikatzeko duela. Horrez gain, haien etorkizunean ondorio kaltegarriak eragin ditzakeela uste dugu.
- Atxilotetak burutzeko moduak justifikatu gabe jarraitzen duela, honakoak alde aurreko dei judizialik gabe eman baitziren. Erabat desegokiak iruditzen zaizkigula, atxilotzeak aurrera eramane zituzten bai leku, baita unea ere, horrek komunikabideen jarraitze mediatikoa sustatu zuelarik. Ordura arte, pertsona inplikatuak haien etxeetan zeuden haien egunerokotasunean.
- Ideologia ezberdineko pertsona askoren elkartasunak eta babes instituzional zabalek solidaritate eskaeraren inguruko kezka eta ardura handia dela adierazten duela. Hala izanik, gure eskakizun gorena kontuan hartzea behartzen dute: gertakarien epaiketa Nafarroan ematea eta, hortaz, atxilotuen askatasuna gauzatzea.
- Horrela, auzia lekualdatu eta Nafarroara ekartzea eskatzen dugu. Horrez gain, udalerraren izena leheneratzea eta egokitu zaizkion aurreko garaien salakuntzetatik askatzea galdatzen dugu, ez baitute gaur eguneko egoerarekin bat egiten.

